

Janneke Wesseling

Artistak eta Akademia

Akademiako artisten posizioa ez da batere agerikoa. Nola ikertzen dute artistek eta zergatik deitu behar izango litzateke ikerketa? Nolakoa da beraien ikerketa eta akademiarekiko harremana?

Janneke Wesseling-ek arte ikerkuntzaren dilemak eta ondorioak Lilo Nein (Viena, Austria) eta Ruchama Noorda (Amsterdam, Herbehereak)-ren arte ikerkuntzako doktorego ibilbideen bidez eztabaidatuko ditu.

Mika Elo

Arte ikerkuntzaren paradoxak

Azken hamarkadetan arte ikerkuntza oso modu bizian eztabaidatu izan da. Debateak asetze maila bat lortu duenez, gai gako batzuk ikuspuntu berri batetik aztertzen hasi dira. Arte ikerkuntzaren gaurko egoerari dagozkion gai gako hauek tesi-paradoxiko gisa tratatuko ditut.

Nik “arte ikerkuntza sindromea” deitzen dudanaren konstelazioa azpimarratuko dut. Kulturako marko teoriko batean, ikerkuntza artistikoaren irakurketa sintomatiko bat aurkezteko saiakera bat izango da hitzaldia.

Mafe Moscoso

Bizitza etetea hari begiratzeko: metodologiak eta etnografia-sentsibilitatea

Nola begiraten diogu munduari? Zer tresna erabiltzen ditugu horretarako? Nola eragiten dio ikusten dugun moduak begiraten diogunari? Nola eragiten dio begiraten dugun horrek gure ekoizpen artistikoei? Zeintzuk dira gure begiradaren inplikazio politikoak? Posible al da iadanik ikusten ez duguna ikustea? Hauek dira proposamenaren abiapuntuko galdera batzuk. Eguneroko bizitzan esperientzia berreskura dezagun, errealitateari begiratzeko moduaren mehaketa arretatsua eskatzen du; praktika erraza da eta aldi berean basatia, izan ere munduan daukagun lekuaz eta eguneroko praktiken pertzepzioaren eraikuntzaz ausnartzeko pausatzerak behartzen bait gaitu.